

Bullying homofobikoari buruzko aurrezagutzak
Previous knowledge concerning homophobic bullying

Amets Zarraga*¹, Eneko Tejada², Arantzazu López de la Serna², Naiara Bilbao²

¹ Lehen Hezkuntzan graduatua (UPV/EHU)

² Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (UPV/EHU)

LABURPENA: Eskola jazarpena azken aldian garrantzia hartu duen arazoa da. Bullyingak duen aldaeretak bati, hots, bullying homofobikoari oraindik ez zaio behar besteko garrantzia eman. Azkeneko honek orientazio edo baldintza sexualarengatik sufritzen diren erasoei erreferentzia egiten dio, sarritan jokaera negatiboen arrazoiak delarik. Hortaz, berrikuntza lan honen bitartez Lehen Hezkuntzako irakasleriak gai honen inguruan duen ezagutza maila aztertu da. Azterketan jasotako datuek hezkuntzako profesionalak gaiaren inguruan ideia orokor bat dutela adierazi duten arren, bullying homofobiko kontzeptuaren inguruko zehaztapenak falta zaizkiela jaso da emaitzetan.

GAKO-HITZAK: eskola jazarpena, bullying homofobikoa, aurreiritziak.

ABSTRACT: *Bullying is a current problem that occurs in education and has recently become extremely important for society. However, homophobic bullying has not been given the importance it should have. This one, refers to the harassment that is suffered by sexual orientation or condition, sometimes being the reason for such negative behaviors. Therefore, with this research work, by quantitative study, it has been analyzed the knowledge that primary education teachers have on this matter. The information received shows that education professionals have a general idea of the subject, but exposes the lack of precision about homophobic bullying.*

KEYWORDS: *bullying, homophobic bullying, preconceptions.*

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Amets Zarraga. UPV/EHU. Lehen Hezkuntzan graduatua. Tolosa hiribidea, 70. E-20018 Donostia/San Sebastián – ametszarraga29@gmail.com

Nola aipatu / How to cite: Zarraga, Amets; Tejada, Eneko; López de la Serna, Arantzazu; Bilbao, Naiara. (2018). «Bullying homofobikoari buruzko aurrezagutzak»; *Tantak*, 30(2), 177-200. (https://doi.org/10.1387/tantak.19381).

Jasotze-data: 2018/04/16; Onartze-data: 2018/11/08.

ISSN 0214-9753 - eISSN 2444-3581 / © 2018 UPV/EHU



Obra hau *Creative Commons Atribución 4.0 Internacional*-en lizentziapean dago

SARRERA

Egun hezkuntza komunitateak intentsitate handiago edo txikiagoan, aurre egin behar dion arazoetako bat; eskola jazarpena da. Bullying-ak duen aldaeretakoa bati, hots, bullying homofobikoari oraindik ez zaio behar besteko garrantzia ematen; izan ere, hamarkada gutxi batzuk arte, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da ikerketa ugariarik egin. Hortaz, lan honetan, Lehen Hezkuntzako irakasleriak bullying homofobikoaren inguruan duen pertzepzioa eta ezagutza maila aztertu da eta bera ekiditeko irakasle profila identifikatu.

Bullying-a ezagutzen

Bullying edo eskola jazarpena etsaitasunez eta botere erreal edo faltsu batez baliatuz ematen diren jokabide oldarkorrei erreferentzia egiteko erabiltzen den kontzeptua da (Erazo, 2012; Sánchez eta Cerezo, 2014). Hala ere, jokaera negatibo horiek behin eta berrin eta denbora tarte batean pairatzen dira, betiere, helduen begiradetatik urrun, babesik gabeko biktima bat umiliatzeko eta gehiegikeriaz menderatzeko xedearekin (Avilés, 2006).

Bere aldetik, Trianes, Sanchez eta Muñozen arabera (2001), ekintzak indibidualki zein taldeka egin daitezke, hau da, talde batek edo pertsona batek beste bati egindako erasoerri erreferentzia egiten diete, eta erasoak pairatzen dituzten norbanakoen probokazio eza nabarmentzen da. Era berean, Garaigordobil eta Oñederrak (2010) erasotzaileen helburu nagusia biktimari mina eragitea dela gehitzen dute.

Jakin beharrekoa da jazarpen egoerak ez direla ikastetxean ohikoak diren gora-beherekin nahasi behar. Berdinen arteko gatazkak, liskarrak eta portaera edo indiziplina arazoak fenomeno asaldatzaileak izan arren, ez dira benetako eskola jazarpen arazoak. Hala ere, arazo horiei aurre egiten ez bazaie, bullying egoera bilaka daitezke (Menéndez, 2004). Beraz, bullying-a jokaera oldarkorretatik bereizten da, denbora tarte batean erregulariki eta modu errepikatuan ematen den ekintza delako, eta parte-hartzaileen artean botere desoreka nagusitzen delako (Díaz, 2015).

Eskola jazarpen bakoitzak ezaugarri propioak ditu, bestela esanda, bullying egoera guztiak ezberdinak dira eta era desberdinetan azal daitezke, hala nola zuzenean eta zeharka. Lehenengoan, eraso nabaria da eta biktima konturatzen da norbait kalte egiten ari zaiola. Bigarren mota, al-diz, aurrekoa baino sotilagoa izan ohi da (Ruiz, Riuró eta Tesouro, 2015). Aditu horiek eraso fisikoa, verbala eta soziala zeharka edo zuzenean plaza daitezkeela adierazten dute.

Ildo beretik jarraituz, Avilés (2006) eta Menendezek (2004) eraso jardueran zuzenean parte hartzen duten edukietan oinarritzen den hurrengo sailkapen hau ezartzen dute (ikusi 1. Taula):

1. taula
Eskola jazarpen motak. Aviles (2006)

Motak	Ezaugarriak
Fisikoa	Ostikoak, ukabilkadak, bultzadak, haginkadak, edozein objektu-ekin kolpeak ematea edo horiekin erlazionatutako beste edozein ekintzagaratik berezia da.
Berbala	Irainak eta isekak, publikoki adarra jotzea, mehatxatzea eta ezi-zenak jartzea nabarmentzen dira besteak beste.
Psikologikoa	Pertsonaren autoestimua jaisten edo mintzen eta beldur sententzioa bizkortzen dituzten jarduerak nagusitzen dira, hala nola apalkuntza eta pertsona bat irrigarri uztea.
Soziala	Biktima taldetik eta gainontzeko ikaskideengatik baztertzean datza, pertsonaz gaizki hitz eginez, bere pertsonari buruzko zurrumuruak sortuz, etab.
Sexuala	Abusu eta xantai sexualak gailentzen dira, baina orientazio sexualaren ondorioz jasaten diren abusuek ere presentzia dute.
Ciberbullying	Teknologia berrien eta interaktibo bidez egindako mehatxu edota irainetan oinarritzen da.

Mota horiek guztiak banaka edo aldiberean gerta daitezke, azkeneko hori izaten da arruntena; izan ere, biktima gehienek une berean eraso mota bat baino gehiago pairatzen dute; esate baterako, eraso fisikoa, psikologikoa edota soziala (Barri, 2006).

Dinamika horietan, argi berezitateko bi subjektu desberdintzen dira. Batetik, bully edo erasotzailea, hau da, beste pertsona batengan indarkeria jarduten duen pertsona, eta bestetik, erasoak pairatzen dituen, hots, biktima (Sánchez eta Cerezo, 2014). Paulino, Aviles eta Sales-ek (2016) aipatutako bi subjektuez aparte, hirugarren bat gehitzen dute, ikuslea. Azken horrek mehatxu egoerak ikusten ditu eta erantzun zenbait izan ditzake horien aurrean, hala nola erasoak onetsi edo gaitzetsi.

Parte-hartzaileen deskribapena

Larderia ekintzak gauzatzen dituen, hau da, rol pasiboan dagoen beste batenganako jokaera oldarkorren sortzailea, erasotzaile bezala ezagutzen den ikaslea da. Erasotzailearen karakterizazioari dagokionez, nortasunean eta larderien ezaugarrietan desberdintasunak aurkitzen direnez gero, zen-

bait eredu eta tipologia sortzen dira (Áviles, 2009). Esate baterako, Erazok (2012), bi erasotzaile mota identifikatu ditu, bata menderatzailea eta bestea, grinatsua.

Lehenengo motan, erasotzaileak boterea izateko eta maitatua sentitzeko obsesioa izaten du. Obsesio horrek bultzatzen du bere botere fisikoa erakustera, eta aldez aurretik pentsatutako ekintzen bidez biktima zehatz bat apaltzera. Izan ere, oldartzaile mota honek biktimganganako apalkuntzarekin plazera sentitzen du. Une oro, burutzen dituen jazarpen ekintzez kontziente da; hortaz, larderia ekintzak ezkutuan edota helduen gainbegiradetatik urrun dauden espazioetan gauzatzen ditu. Aldiz, ikasle talde baten presentzia beharrezkoa du, eta bere ustez bera baino mendekoagoak diren kideak mendean hartzen ditu onespren soziala bilatzen duelako. Ondorioz, aipatzekoa da aktore nagusia nortasun antisozial eta manipulatzailedun erasotzailea dela (Cerezo, 2009a).

Bigarrena, bestalde, lidergo eta autoestimu positiboa izateagatik bereizten da. Oldartzaileak nortasun oldartsu eta suminkorra du, eta biktimaren sentipenekiko enpatia falta, erru sentimendurik eza eta gainontzekoak menderatzeko beharra islatzen du. Nabarmentzekoa da bere ekintza negatiboak existitzen ez diren probokazioen erantzun gisa justifikatzen dituela (Áviles, 2006).

Literaturak generoaren araberako larderiak deskribatzen ditu. Erazo (2012) eta Cerezoren (2009a) hitzetan, mutilek zuzeneko eraso fisikoa erabiltzeko joera dute, eta neskek zeharkako oldarkeriei ematen diete lehentasuna. Izan ere, genero honetan, eraso psikologikoa eta berbala nagusitzen da.

Eskola jazarpena sufritzen dituzten pertsonak, ostera, ahulak, segurtasunik gabekoak, zuhurrak, sentiberak, lasaiak eta lotsatiak izan ohi dira; laburbilduz, autoestimu maila txikien jabe dira. Horri lagunak egiteko, hau da, erlazioatzeko dituzten zailtasunak gehitu behar zaizkio (Áviles, 2006, Paulino et al., 2016).

Biktima eta erasotzailearen artean ezartzen den erlazioari dagokionez, gorabeherak dituzten erlazioak dira, non, indartsuenaren eta ahularenaren figurak presentzia duten. Era berean, nabarmentzekoa da, erasotzaileek duten izaera irekia dela eta, edozein momentu eta testuingurutan biktimgangan duen nagusitasuna. Beraz, erlazio interpersonalek paper garrantzitsua beteten dute haurren pertsonalitatean eta soziabilitatean (Cerezo, 2009b).

Ikusleak mota horretako egoera baten aurrean duten jokabidearen araberak sailkatzen dira. Adiskideak bully edo erasotzailearen lagun minak dira eta hari erasoan laguntzen diote. Bestalde, bultzatzaileek, zuzenean oldartzen ez diren arren, erasoaldiak behatu eta onartzen dituzte, erasotzaileak zirikatzeaz gain. Azken horren helburua, erasotzaileek haien jarrerara kaltegarriekin jarraitzea da. Bestelakoak ostera, neutral mantentzen dira, hau da, ez dute egoeran inplikatu nahi, baina isilik egotearen ondorioz, egoera toleratzen dute. Azkenik, defendatzaileak daude; horiek bik-

tima babestu eta laguntza eman ohi diote (Chamorro, 2011; Garaigordobil eta Oñederra, 2010).

Horren inguruan, Chamorrok (2011) adierazten du gainerako kideek biktimaren alde ez inplikatzearen arrazoia oldartua izatearen beldurra dela. Era berean, ikusleak tratu txarren konponbidean oso eraginkorrak suertatzen direla azpimarratzen du, egoerak txarrera egin dezakeelako, ikusleek horren aurrean ezer egiten ez badute, edo kontrakoa, egoera salatzen bada.

Autore anitzek gaur egungo irakasleak eskola jazarpenaren inguruko ezagutza falta dutela nabarmentzen dute aurretik bullying arloko formakuntzarik jaso ez dutelako (Nicolaidis, Toda eta Smith, 2002). Hori dela eta, irakasleria gehiena ez da gai sentitzen mota horretako egoera baten aurrean jarduteko. Etorkizuneko maisu-maistren prestakuntza falta ere sumatzen da dinamika horiei aurre egiteko, zein biktimekin, erasotzaileekin, familiekin eta gainontzeko ikasleekin lan egiteko (Del Barrio et al., 2000; Navarro, 2011).

Jarduera horiek maiztasun handienaz ematen diren tokiak hezkuntza-aldiaren arabera dira. Bigarren Hezkuntzan, ikasgelak dira nabarmenak, nahiz eta, jolastoki eta eskolako sarbideek ere garrantzia izan. Lehen Hezkuntzan berriz, ikasgeletan irakasle aldaketa gertatzen denean, jolastokian, eta eskolaren beste espazio batzuetan (komuna edo aldageletan, jantokian, eskola garraioan, etab.) gertatzen dira ohikoenak (Cerezo, 2009b).

Bullying-a bultzatzen duten faktore sozialak

Eskola jazarpena arrazoi ugariengatik gertatzen den fenomeno da. Hortaz, mota horretako gertaerak ulertzeko, beharrezkoa da gertakizunen testuinguru osoari erreparatzea (García, Moncada, Quintero, 2013).

Lehenik, gaur egungo gizartean nagusitzen diren balio kulturekin, norberkeriarekin, lehiakortasunarekin eta onura pertsonalekin erlazio zuzena duen testuinguru kulturala dago. Aurreko ezaugarriak hainbat modutan islatu daitezke, esate baterako, ohikoa da neska eta mutilak gainontzekoak baino hobeak direla erakusten saiatzea, horretarako, jazarpenaz eta indarkeriaz baliatu behar badute ere. Bigarrenik, testuinguru sozialak ere eragin handia du; izan ere, familiaren klima eta elkarrekiko integrazioa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da bizitzarekiko asebetea eta, ondorioz, eskola jazarpenaren biktima izateko probabilitatea murriztuko da. Izan ere, familien ezaugarriek, klimak eta funtzionamenduak funtsezko papera betetzen dute arrisku eta babes faktore bezala. Hirugarrenik, eskola testuinguruak heziketa-zentroetan gertatzen diren indarkeria edo bortxakeria jardueretan eragina du eta zentroaren tamaina, eta testuinguru sozioekonomikoaren arabera, bullying kasu gehiago edo gutxiago egongo dira. Laugarrenik, bullying-a ikasgelako kide guztiek parte

hartzten duten talde-fenomenoa denez gero, taldearen estruktura posible egin dezake jazarpen egoera gertatzea, irautea edota bukatzea (Ovejero, Smith eta Yubero, 2013).

Taldean onartuak izateko nahia dela eta, zenbaitetan, ikasleek erasoak edo tratu txarrak erabiltzera behartuak sentitzen dira. Azkenik, testuinguru pertsonala ere aipatzekoa da. Faktore pertsonalak lau behar psikosozialetan du jatorria: autoestimuan, identitate positiboan, onarpenean eta kide izatean. Lau behar horiek eskolan asetzen ez badira, ikasleak jarrera bortiztutan aritzeko aukera gehiago izango ditu (Áviles, 2006; Gómez et al., 2007).

Euskal Autonomia Erkidegoko datuen bilakaera

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2009. urtean egindako ikerketak aditzera eman zuenez, 2008/2009 ikasturtean aztertutako 89 kasuetatik 32 eskola jazarpen bezala identifikatu ziren. Lehen Hezkuntzan kasuen %16,9 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan %11,9, hain zuzen ere. Gertaeren izaerei dagokienez, Lehen Hezkuntzan nagusitzen ziren ahozko tratu txarrak (%16,9), bazterketa (%5,5), gauzenganako eraso (%4,2) eta eraso fisikoak (%4). DBHn mota berak nagusitu ziren: ahozko tratu txarrak (%7,5), bazterketa (%3,5), gauzenganako eraso (3,6) eta eraso fisikoak (%1,8), ehunekoetan aldea egon bazen ere (ISEI.IVEI, 2009).

Bestalde, 2012. urteko ikerketak 2011/2012 ikasturtean salatutako 146 kasu posibleetatik 78 baieztatu zirela adierazi zuen. Ikerketaren argitalpen horretan biltzen diren datuak aurrekoarekin alderatuz gero, ahozko tratu txarrek Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 4 puntuko eta DBHn 3 puntuko igoera izan zutela ikus daiteke. Eraso fisikoek ere, bi hezkuntza etapetan, puntu bat egin zuten gora. Aldiz, bazterketak bi puntu eta erdi gora egin zuen Lehen Hezkuntzan (ISEI.IVEI, 2012).

Azken bi ikasturteei dagokienez, 2014/2015 eta 2015/2016 hain zuzen ere, 67 eta 121 bullying kasu frogatu ziren, hurrenez hurren. Eskola jazarpen edo bullying egoerek 2011/2012 eta 2014/2015 ikasturteetan jaitisialdi bat izan zuten arren, datuek, azken urteetan, gora egin dutela islatzen dute (ISEI.IVEI, 2009, 2012; Eusko Jaurlaritza, 2017).

Aurreko ikasturtean frogatutako 121 kasuetatik, %43 ahozko erasoak izan ziren, %24,8 bazterketa sozialak, %15,7 eraso fisiko zuzenak, %11,6 mehatxu edo xantaiak eta %0,8 eraso sexualak. Beraz, azkenaldian ahozko tratu txarrek, bazterketa-sozialak eta eraso fisikoek gora egin dute nabarmen. Halaber, tipologietan gora-beherak egon arren, gehien gertatzen direnak ahozko tratu txarrak, bazterketa-soziala eta eraso fisikoak dira (Eusko Jaurlaritza, 2017).

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak (2017) adierazi legez, 2009an tratu txarren %1 baino gutxiago erlazionatzen zen Internet edo sare sozialen

bidezko jazarpenarekin. 2012. urtean, berriz, cyberbullyingaren maiztasun orokorra Lehen Hezkuntzako 3. zikloan %11,3koa zen, eta DBHen 10,3koa. Pasa den ikasturtean begirada jarritz, konfirmatutako kasuen %23 mota horretako jazarpenarekin erlazionatuta zegoen. Hortaz, cyberbullyingak gero eta presentzia handiagoa hartuz joan dela begi bistakoa da, eskola jazarpen edo tratu txar egoerekin duen erlazioak urteekin gora egin baitu.

Bullying egoerak saihesteko tresnak

Aurreko atalean islatutako errealitateak gizarteak mota honetako jazarpenei zer-nolako erantzuna ematen dien hausnartzera bultzatzen du. Izan ere, kasu gehienetan, sufrimenduari irtenbidea emateko modu gisa, biktima da hezkuntza zentroa utzi egiten duena, hezkuntza komunitateek egoera horien aurrean duten ezgaitasuna onartu ordez. Azken horren arrazoia, sarritan, baliabide eta esku-hartze estrategien falta da. Aldi berean, prebentzio programak egiteko garrantzia justifikatzera eramaten duen beste elementu bat jasotako prebalentzia datuak dira, gaur egun eskola jazarpenak presentzia izaten jarraitzen duelako, eta maiztasun handiz kasu berriak gertatzen direlako. Horregatik guztiagatik, premiazkoa da ikasgeletan prebentzio jarrera sustatzeaz gain, irakasleriari etengabeko formazioa ezartzea, eta elkarbizikidetzako ohitura onak sustatzea, horrek bullying-aren biktima gehiagorik egotea saihestez dezakeelako (González, 2015; Nicolaidis, Toda eta Smith, 2002; O'Moore, 2000).

Eskola jazarpenaren prebentziora bideratutako erreferentzia programak, gaur egun, anitzak dira. Programa horietariko bakoitzak elementu zehatz batzuk lantzen ditu bullying egoerak saihesteko asmoz; adibidez, enpatia, talde-sentsibilizazioa, elkarbizitza, etab.

Europar, Finlandiar hain zuzen ere, 2007. urtean KiVa programa ezarri izan da. Horren bitartez, 7, 10 eta 13 urtetako ikasleei 20 saiotan bullying mota desberdinak identifikatzen irakasten zaie. Modu horretan, txikitatik egoera horren inguruan kontzientzia hartuz doaz. Guztira 10 irakasgai daude, eta kurtsoan zehar egindako lanen bitartez, enpatia eta errespetua eta antzeko balio moralak erakusten zaizkie. Ekintza horiek gauzatzeko, baliabide ugari erabiltzen dira; esate baterako, hitzaldiak, bideojokoak, irakasleentzako gida liburuak eta filmak (Enbajada Finlandia, 2015).

TEI (Tutoria Entre Iguales) programa, Gonzalezek (2015) sortutako prebentzio baliabidea, hezkuntza komunitate guztia bere baitan hartzen duen bizikidetzaren instituzionaleko programa da. Eskola integrazioa hobetzera, eta eskola inklusibo ez bortitzaren alde lan egitera bideratuta dago, berdinen arteko erlazioak sustatuz. Programa horren helburu nagusia bizikidetzaren gatazka eta bortizkeriaren (emozionala, fisikoa edo psikologikoa) aurrean ikasleek izan ohi duten jarrera hobetzea da. Berdinen arteko tutore-

tzan oinarritzen da, eta hezkuntza garapenean errespetua, enpatia eta konpromisoa eta antzeko balioak sustatzen dira. Programa horretan parte hartzen duten zentroek bortizkeriaren eta eskola jazarpenaren praktika onak, materialak, etab. garatzen dituzte.

Garaigordobil eta Martinez-Valderreyk (2014) Cyberprogram 2.0 garatu zuten. Programa 10 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago, eta ordubeteko iraupena duten 19 saioz osatuta dago. Saio bakoitza zenbait ariketaz osatuta dago, eta eskola jazarpen egoerak prebenitzea eta esku-haritzea dute helburu nagusi, era pertsonalean zein elektronikokoan.

Prebentziora zuzendutako beste baliabide bat CIP programa (Cerezo eta Sánchez, 2013) da. Helburu nagusia da bullying-a alderdi guztietatik saihestea eta ikasgelaren giroaren hobekuntzaren bidez ikasleen arteko erlazioa indartzea. Horretarako, programak hainbat ariketa proposatzen ditu, jarrera oldarkorrek kontrolatzera, biktimak aurre egite estrategiak garatzera eta jarrera pro-sozialen garapena hobetzera zuzenduta daudenak.

Bullying homofobikoan sakontzen

Bullying homofobikoa eskola jazarpenak izan ditzakeen aldaeretakoa bat da eta nerabeek beren orientazio edo baldintza sexualarengatik sufritzen dituzten erasoez dihardu (Agustín, 2009; UNESCO, 2015;). Platerok (2008) esandakoari jarraituz, eskola eremuan aurretik haien homosexualitatea, bisexualitatea edo transexualitatea aitortutako pertsoneri edota haien ahots tonu, keinu zein janzteko erarengatik homosexual edo bisexualtzat hartzen diren pertsoneri zuzendutako bortxakeria da. Bere aldetik, Pichardok (2015) aditzera ematen du ikasle horiek beren berdinen edo ingurune hurbilekoek baztertuta eta bakartuta gelditzeaz gain, mehatxuak, irainak, lapurretak eta eraso fisiko edota sexuala ere pairatzeko aukera dutela.

Orientazio edo identitate sexualarekin erlazionatutako jazarpenean, erasotzailea homofobiaz, sexismoz edo heterosexismoan oinarritutako balioez baliatzen da bere erasoak aurrera eramateko. Biktima, ostera, deskalifikatua eta apaldua da, eta ez da gai berez egoera larri horretatik irteteko. Jokabide homofoboek ez dute soilik biktimgan eragina, biktimen lagunak eta familiak ere, sarritan, bortxakeria, bazterketa eta iseken objektu baitira. Bere aldetik, ikusleak gertatzen ari denaz kontziente dira eta egoera onartzen dute, betiere, egoera ezagutzen ez duten pertsona helduen ezkutuan edo egoerari garrantzia kentzen diotenen aurrean. Azken hauek, erasotzailearen laguntzaitzat hartzen dira; izan ere, egoeraren jakinaren gainean daude, egoerari aurre egin gabe (Bautista, 2016; Platero, 2008).

Ildo beretik jarraituz, COGAM, Madrileko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen elkarteak (2016) aditzera ematen du bullying homofobikoaren biktimek jazarpena Informazio eta Komunikaziorako Teknologien (IKT) eta sare sozialen bitartez jasan ditzaketela.

Ezaugarri adierazgarriak

Bullying orokorra eta homofobikoa alderatuz gero, komunean ezaugarri anitz dituztela nabarmendu beharra dago; esate baterako, erasoan adierazpena, maiztasuna eta xedea, eragilea edo arrazoia eta botere desoreka. Ezaugarri horiek guztiak bullying orokorra zein homofobikoaren baitan daude (UNESCO, 2015).

Eskola jazarpen homofobikoaren berezko ezaugarrietako bat ikusezintasuna da; izan ere, aniztasun sexuala ia ikusezina denez gero, beraren aurkako erasoak ere oharkabean pasatzen da. Horrez gain, indarkeria egituratua da, hau da, kultura homofobikoek bortizkeria onartzen dutenez, erasotzaileak isiltasunaz eta konplizitateaz baliatzen dira. Bullying mota horrek duen beste bereizgarritasunetako bat estigmaren kutsadura da. Bestela esanda, erasoak pairatzen dituen pertsona bati hurbiltzen zaionak diskriminazio bera sufritzeko aukera du. Etengabeko bazterketa ere jazarpen homofobikoaren berezko ezaugarri bat da, diskriminazioa, jazarpena edo bazterketak bizitzaren eremu guztietara hedatzen baita, eta ez soilik eskola edo ikasgela eremura. Azkenik, gaineratzekoa da homosexualitatearen inguruko iruzkin peioratiboak eguneroko hizkuntzan ohikoak izatearen ondorioz, irainak etengabe hedatzen direla (Agustín, 2009; Calderón, Cortés eta Retamales, 2012).

Homofobiaren agerraldia

Homofobia pertsonen edo taldeen kontrako edozein diskriminazio, bazterketa edo bortxa ekintza da, eta homosexualitatea edo identitate sexuala du oinarritzat. Gaur egun, era orokorrean, disidentzia sexualen azalpen guztienganako arbuiatze bezala ulertzen da homofobia, eta era fisikoan (kolpeak, jipoiak, bortxaketa sexualak edo giza hilketa, besteak beste) edo ez fisikoan (hitz peioratiboak, esaldi iraingarriak, bazterketa soziala, lanbazterketa, familiaren bazterketa, etab.) adierazia izan daiteke. Hitz gutxitan, genero eredu arauemiletatik kanpo hautematen edo azaltzen diren pertsonen zuzendutako diskriminazio mota da (Pulido, Muñoz eta Pérez-Palacios, 2013; Platero, 2008).

Horren arabera, Platero (2008) eta Molinuevok (2007) bullying homofobikoaren arrazoi edo kausa nagusia homofobia dela adierazten dute. Izan ere, gizartearen parte batek heterosexualitatea orientazio sexual onartu bartzat jotzen interpretatzen du, eta gainerako adierazpen sexualak baztertzen ditu (Cornejo, 2012). Arestian azaldu legez, bullying-a erasotzaileak biktimaren babesgabetasun natural edo sozialez aprobetxatzen den bortxakeria egoera bat da. Hortaz, disidentzia sexuala jazarpen ariketarako aitzakia bikaina da, biktima sozialki kondenagarria den talde baten kide baldin bada. Hain zuzen, taldekideek dituzten baldintza marjinalak ekintzen zigorgabetasuna errazten dute.

Bullying homofobikoa sustatzen duten faktore sozialak genero estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioak dira (Calderón, Cortés eta Retamales, 2012; Schoolmates, 2008).

Genero estereotipoak gizarteak onartutako gizon eta emakumeen ezaugarri bereizgarriei buruzko ideia sinplifikatuak dira, eta sexuaren arabera ezaugarriak zehazteaz gain, genero bakoitzari kultura bakoitzak esleitzen dizkion zeregin eta rola ere biltzen ditu (Rodríguez eta Mancinas, 2015).

Gure gizartean, emakume zein gizonezkoei esleitutako ezaugarrien arabera, gizonezkoak eta emakumeak berdinak ez direla aintzat hartzen da. Izan ere, emakumeei ahultasun eta gutxiagotasun ezaugarriak egotzi egiten zaizkie, eta gizonezkoei maskulinitasunarekin erlazioatutako ezaugarriak egokitzen zaizkie; esate baterako, ahalmena, sendotasuna, gaitasuna eta harrotasuna. Halaber, gizonezkoei beren sentimenduei uko egiten irakasten zaie, eta bihozgabetasun ezaugarria atxikitzen zaie (Schoolmates, 2008). Pacheco, Cabrera, Manzón, González eta Bosquek (2014: 855) aditzera eman legez, «los estereotipos de género contraponen lo personal, lo social, lo interno y lo externo, lo privado y lo público, en tanto las personas deben someterse a un orden que los obliga a comportarse y asumir una imagen social que en la generalidad de los casos no se corresponde con su identidad y su potencial personal».

Eskola jazarpen homofobikoa bultzatzen duen beste faktoreetariko bat aurreiritziak dira. Taldeak edo pertsona bat epaitzeko joera da, epaiketa hori justifikatzen duen alde aurretiko informaziorik gabe; bestela esanda, objektibotasunik ez duten iritziak dira (Acuña-Ruiz eta Oyuela, 2006). Aurreiritziak negatiboak izan ohi direnez gero, diskriminazioarekin erlazionatuta daude, zerbait edo norbait baztertu egiten baita hura epaitzeko ezauguera nahikoa izan gabe. Adibidez, subjektu batek pertsona homosexual bat desberdina dela uste badu, ez da pertsona horrengana hurbilduko hura ezaugatzeko, eta bere aurreiritzia aldatzeko (Schoolmates, 2008).

Jazarpen homofobikoaren azken eragile soziala diskriminazioa da, hau da, pertsona edo talde bati gutxiagotasun-tratua ematea, pertsona edo talde horien jatorri etnikoen, sinesmenen, adinaren, generoaren, iritzien, lehentasun politiko eta sexualen edota ezgaitasunen ondorioz. Horrenbestez, LGBT (Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexual) pertsonen kasuetan, hainbatek ez dute beren orientazio sexuala azaleratzen, diskriminazioaren biktima izateko beldur baitira (Comisión Nacional de Derechos Humanos, 2012).

Parte-hartzaileetan duen eragina

Jazarpenak ondorio psikologiko larriak uzten ditu biktimarengan, baina jazarpena arrazoi homofoboengatik gertatzen bada, biktimizazio berezia eragiten da biktimek beren orientazio edo identitate sexualean sufritzen di-

tuzten erasoarengatik, kanpoko laguntasun ezarengatik, egoera argitaratzeko ezintasunarengatik, erasoan arduradun sentitzeagatik, etab. Horrek guztiak biktimek, beste gauza batzuen artean, antsietate, estres eta autoestimutim baxuko agerraldi larriak izatea eragiten du, eta sarritan ikasketak uztera behartuta daude (Marchueta, 2014).

Horren inguruan, Agustinek (2009), eskola jazarpen homofobikoa sufritzen duten ikasleen ondoez psikologikoen eta bizitzen ari diren egoera jasanezinarekin amaitzeko nahiaren ondorioz, hainbatek suizidioaz pentsatzen edo bere buruaz beste egiten dutela adierazten du. Pichardoren (2015), hitzei jarraituz, homofobiagatik eskola jazarpenaren biktimak diren haur, gazte eta nerabeek bizitzaren egunerokotasunean sufrimendu garrantzitsua pairatzen dute. Izan ere, homofobia pertsonen bizitzaren oinarritzko alderdietan oinarritzen denez, hala nola identitate, sexualitate eta afektibitatean, biktimen bizi garapenean ere eragina du.

Fenomeno horrek ondorioak ditu parte hartzaile guztiengan, nahiz eta nabarmenenak biktimek pairatu. Esate baterako, erasotzaileek beren jarrera gaitzesgarriarekin, maiz, beste ikaskideen mirespena edota onespena lortzen dute, eta portaera eredu horrek erasotzailearengan sorraraz ditzake enpatia falta, erlazio sozial negatiboak, autoestimutim altua baina autokritika baliogabea, erlazio sozial eta familia erlazio arazotsuak, ikasketeenganako interes falta eta eskola porrota. Jazarpenaren ikusle eta lekukoek, beren aldetik, ikas dezakete bidegabekeriaren eta besteen sufrimenduaren aurrean nolabaiteko bihozgabetasuna garatu, edota ol-darkortasuna eta larderia halabeharrezkoak eta erlazioen normaltasunaren parte direla (Agustín, 2009).

Bullying homofobikoaren datuak aztertzen

Espanian eskola jazarpen homofobikoaren inguruan egin diren ikerketak urriak dira. Gainera, dauden txosten gehienak kalteak pairatzen dituzten talde eta kolektiboek sortutakoak izan ohi dira (Cerezo, 2015; UNESCO, 2013).

FEGLBT txostenak 2012ko datu adierazgarriak plazarazten ditu bullying homofobikoaren inguruan. Parte hartu zuten 653 gazte homosexualetatik (25 urtera arte) %81ek eskola jazarpena sufritu zuen. Pairatu zituzten jazarpen mota nagusien artean daude bazterketa (%76), gaizki hitz egitea (%72), irainak (%71), isekak (%64), indarkeria fisikoa (%41), jazarpen zibernetikoa (%14) eta sexuala (%6). Nabarmentzekoa da eraso hauek ia egunero sufritzen zituztela. Bullying homofobikoa jasan duten denbora tarteari dagokionez, %69k urte bat baino gehiagoz jarrera negatibo horiek toleratu zituela aitortu zuen. Bestalde, %20k urtebete baino gutxiago, %6k hilabete bat baino gutxiago eta, azkenik, %5ek aste bat baino gutxiago jasan zituela adierazi zuten (Cerezo, 2015).

Bere aldetik, Schoolmates (2008) elkarteak, Espainiako 152 neraberen (25 urtera arte) bizipenetan oinarrituz, nazioarteko txostena egin zuen. Bertan, ehunetik ia hogeita sei gaztek (%25,7) une orotan edo maiztasun handiz orientazio sexualarekin erlazioatutako hitz iraingarriak entzuten zituztela aditzera eman zuten. Adierazpen horiek erabiltzen zituzten ikasleen artean, mutilen %91,9 eta nesken %52,4 nabarmentzen da. Aldi berean, gaineratzekoa da, irakasleen artean ere mota horietako hitzak presente zeudela. Izan ere, gizonezko irakasleen %1,6k berba iraingarriak erabiltzen zituen. Adierazpen homofobikoak gehienbat ematen diren lekuei dagokienez, saioen arteko atsedendialdiak (%83,6), pasabideak (%59,6) eta ikasgelak (%45) gailentzen dira.

Azkenik, bullying homofobikoa gauzatzeko eran begirada jarriz, ciberbullying-ean hain zuzen, 2014/2015 ikasturtean Madrileko Autonomia Erkidegoko COGAM elkarteak egindako ikerketa gailentzen da Espainian. Guztira, ikerketan 21 ikastetxetako 2678 ikaslek parte hartu zuten. Horietatik, LGB (Lesbiana, Gay eta Bisexual) kolektiboaren parte diren eta beren orientazio sexualarengatik ciberbullyinga pairatu zutenen artean, %21,43 gay, %11,76 lesbiana, %19,05 mutil eta %9,52 neska bisexual ziren. Ciberbullying LGBT-fobikoa sufritzen zuten ikaskideak ezagutzen zituzten ikasleen pertzepzioa kontuan harturik, %72,31k testuinguru hurbilean erasotzaileak aintzat hartzen zituela aditzera ematen dute. Bestalde, %36,15ek ez ditu mota honetako egoerak bere inguruan identifikatzen, eta %13,27k ez ditu ezagutzen. Amaitzeko esan beharra dago ikasleek sare sozialetan maiztasun handiz behatutako apalkuntza LGBT-fobiko nagusiak mezu iraingarriak (%70,83), argazki edo irudi iraingarriak (%25,38), identitate ordezkapena (%23,51) eta bideo iraingarriak (%12,64) zirela (COGAM, 2016).

HELBURUAK

Bullying homofobikoaren inguruan dauden ikerketak urriak dira eta fenomeno zehatz horri erantzuteko irakasleriak beharrezkoak dituen tresnak garatzeko daude. Bitartean, arazoari aurre egiteko gai diren irakasleak antzematea ezinbestekoa da. Hori dela eta, bullying homofobikoari aurre egiteko gai diren ustea duten irakasleak identifikatu behar dira eta bullying tradizionalako arazoak daudenean erabiltzen dituzten konponbideak eta neurriak aztertu.

Ondorioz, arazoa gertatu ohi den tokiko profesionali itaunduz, ikerketa honen bitartez ondorengo helburuak erdietsi nahi dira: 1) irakasleriak bullying homofobikoaren inguruan duen ezagutza hautematea; 2) irakasleriak tratu txar eta jazarpenei erantzuteko erabiltzen dituen neurriak aztertea; 3) bullying homofobikoari erantzuteko gai den irakasleriaren profila ezagutzea.

METODOLOGIA

Lagina

Ikerketa honetan Bizkaiko Lehen Hezkuntzako bost eskolatan jardunean dauden 84 irakaslek parte hartu dute; 31 gizona (%36,9) eta 53 emakumezko (%63,1). Laginaren lan esperientzian oinarrituz, 26 irakaslek (%30,9) 1-10 urte bitarteko esperientzia dute. Berriz, 21ek (%25) 11-20 urte bitartekoa, eta 19k (%22,6) 21-30 urtekoa. Gainerakoek, 18k (%21,4) 31-40 urte bitarteko lan esperientziaren jabe dira. Aztergai den populazioaren lagina adierazgarria da, barne trinkotasunaren azterketa handia delako (Cronbach-en α 0,81).

Irakasleak hautatzeko lagina ezustekoa eta ez-probabilistikoa izan da, eskuragarritasun irizpideen arabera. Aukeraketa prozesu horrek ondorioen adierazgarritasun eta orokortze prozesuei laguntzen ez badie ere, aurrerantzeko ikerketak gauzatzeko aukera eskaintzen du.

Ikerketa tresna

Azterlan honetan erabilitako baliabidea datuak jasotzeko *Preconcime* galdetegia izan da (Cuestionario sobre Preconcepciones de Intimidación y Maltrato Entre Iguales; Áviles, 2002). Tresna horren bitartez irakasleriak jazarpen eta tratu txarren inguruan duen pertzepzioa jasotzen da. Galdeketa aukera anizkun 14 itenez osatuta dago eta irakasleek, beren iritzia araber, item bakoitza batetik (desadostasuna) boosterainoko (adostasuna) puntuazioarekin baloratu dute likert eskala baten bitartez.

Bullying homofobikoaren inguruko aldagaiak —fenomenoaren inguruko ezagupena (*a aldagaia*), arazoa identifikatzeko gaitasuna (*b aldagaia*), problema ebazteko trebetasuna (*d aldagaia*) eta formakuntza beharra (*e aldagaia*)— bat eta bost bitarteko eskala analogiko bisual baten bitartez neurtu dira, bata guztiz desados eta bosta guztiz ados izanik.

Prozedura

Lan honetan ikerketa kuantitatibo deskriptiboa gauzatu da, irakasleriak bullying homofobikoaren inguruan duen ezagutza hautemateko eta tratu txar eta jazarpenei erantzuteko erabiltzen dituen neurrien analisisan. Berriz, azterketa korrelazionala jazarpen tradizionala eta bullying homofobiko aldagaien artekoa izan da.

Ikerketa egiteko bost eskola publikotako zuzendaritza taldeei baimena eskatu zaie. Horien baiezkua jaso ondoren, galdetegia irakasleria guztiari pasatu zaio. Irakasleek inkestak indibidualki erantzun dituzte, lankideen ustean eraginik ez izateko. Galdeketa guztiak jaso direnean, emaitzen gai-

neko analisia egin da, SPSS (*Statistical Package for the Social Sciences*) programaren bidez.

BILDUTAKO EMAITZAK

Bullying homofobikoaren inguruko ezagutza

Ikerketaren bitartez jasotako datuen azterketak aditzera ematen du bullying homofobikoko aldagaien balorazioa desberdina dela irakasleen esperientzia urteak kontutan izanda (ikus 2. taula; ikusi 3. taula). Irakasleriaren %68,93k (≥ 4 ko balorazioa) jazarpen mota horren inguruko zehaztapenen berri du, hau da, badaki fenomeno mota hori existitzen dela (*a aldagaia*). Aldiz, bakarrik %56k balioztatu du lau eta bost punturekin, bullying homofobikoa identifikatzeko gaitasuna duela (*b aldagaia*).

Jazarpen homofobiko kasu posible bat saihesteko gai dela uste duten irakasleen batez bestekoa askoz baxuagoa da (*d aldagaia*), izan ere solik %21,28k baloratu du positiboki (≥ 4 ko balorazioa). Bestalde, gehiengo batek (%84,9; ≥ 4 ko balorazioa) aitortu du interesgarria iruditzen zaiola bullying homofobikoari aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzea.

Bullying homofobikoaren inguruan jasotako datuek azaltzen dute ere lanean esperientzia gutxien (<10 urte) eta gehien (31-40 urte) duten irakasleen artean desberdintasunak daudela fenomenoaren ezagueraren balioztatapenean (*a aldagaia*). Izan ere, hurrenez hurren, irakasleen %60,7k eta %84,97k lau eta bost punturekin baloratu dute aldagai hori.

2. taula
Bullying homofobikoko aldagaien balorazioa ehunekoetan (%), irakasleen esperientzia urteak kontuan izanda

Aldagaiak	< 10 urte n = 33					Guztira	10-20 urte n = 16					Guztira
	1	2	3	4	5		1	2	3	4	5	
a	5,9	15,1	18,2	36,4	24,2	%100	—	—	56,4	31,1	12,3	%100
b		21,1	15,1	33,3	30,2	%100	—	12,3	31,1	18,8	37,6	%100
d	6,2	24,4	42,9	12,2	15,3	%100	—	44,0	38,1	12,9	6,4	%100
e	—	—	—	5,9	94,0	%100	—	—	6,4	12,3	81,1	%100

Esperientzia gutxiago daukaten irakasleen kopurua (%63,5) esperientzia gehien daukatena baino txikiagoa da (%74,67) bullying homofobikoa identifikatzeko gaitasuna hautemateko orduan (*b aldagaia*). Jazarpen homofobiko kasu posible bat ekiditeko gai direla uste duten irakasleen artean

(*d aldagaia*) antzeko datuak jaso dira, batik bat, esperientzia gutxiagoa duten irakasleek (%27,59) beren burua prestatuago ikusten dutelako esperientzia urte gehiago daukatenean baino (%20,17).

Bestalde, baliabideak ezagutzeko interesa adierazten dutenen artean (*e aldagaia*), esperientzia gutxien daukaten irakasleek (%94,02) lan urte gehien dutenak (%79,82) baino jakin-min handiagoa plazaratzen dute.

3. taula

Bullying homofobikoko aldagaien balorazioa, irakasleen esperientzia urteak kontuan izanda (%)

Aldagaiak	21-30 urte n = 17					Guztira	31-40 urte n = 20					Guztira
	1	2	3	4	5		1	2	3	4	5	
a	—	—	—	58,8	39,4	%100	—	5,1	9,8	45,1	39,9	%100
b	6,1	11,6	11,6	47,2	23,8	%100	5,1	9,8	9,8	39,9	34,7	%100
d	12,1	6,1	47,7	23,8	6,1	%100	15,1	15,4	50,6	15,1	5,1	%100
e	—	—	—	29,4	71,1	%100	—	—	—	20,1	79,8	%100

Bullying homofobikoko aldagaien balorazioen batezbestekoei erreparaturaz gero (ikusi 4. taula), esperientzia gutxien (M3,57) eta gehien (M4,2) duten irakasleen arteko konparazioak aditzera ematen du jazarpen homofobikoaren ezagueraren balioespenaren (*a aldagaia*) bakarrik puntu erdia baino gehiagoko desberdintasuna dagoela. Beste aldagaietan, esperientzia urteei dagokionez, ez dago ia alderik.

Jasotako emaitzek plazaratzen ere dute bullying homofobikoa ekiditeko balioespenaren batezbestekoa baxua dela (M 2,95) (*d aldagaia*). Bestalde, ematen du irakasleriak interes handia duela fenomenoaren inguruko formakuntza jasotzeko (M 4,82) (*e aldagaia*).

4. taula

Bullying homofobikoko aldagaien balorazioen batezbestekoa (1-5), irakasleen esperientzia urteak kontuan izanda

Aldagaiak	< 10 urte n = 33		10-20 urte n = 16		21-30 urte n = 17		31-40 urte n = 20		N = 86	
	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT
a	3,57	1,19	3,56	,72	4,17	,63	4,20	,83	3,83	,98
b	3,72	1,12	3,81	1,10	3,70	1,16	3,90	1,16	3,77	1,12
d	3,06	1,11	2,81	,91	3,06	1,06	2,80	1,05	2,95	1,04
e	4,93	2,42	4,75	,57	4,70	,46	4,80	,41	4,82	,41

Tratu txar eta jazarpenei erantzuteko neurriak

Inkesta gauzatu duen irakasleriaren gehiengo batek (%91,7) bost punturekin baloratu du, biolentzia arazoak ikasleen errendimenduan suertatu daitezkeen arazoak bezain garrantzitsuak direla (14. *item*).

Irakasleriaren %36k (≥ 4 ko balorazioa) baloratu du lau eta bost punturekin babesgabe sentitzen dela ikasleriak eskola arauetatik kanpoko jokabideak gauzatzen dituenean (3. *item*), eta %36,1en aburuz (≥ 4 ko balorazioa), irakasleria oro har ez dago jokaera oldarkorreko arazoak eta eskolako bortizkeria ebazteko prestatuta (8. *item*).

Irakasleriak ikasleen arteko bortizkeria eta gatazken kudeaketa beren esku-hartze hezitzailearen barruan dagoela (6. *item*) balioetsi du (%76,8) lau eta bost punturekin, eta bakarrik %31,8k bost punturekin baloratu du ikasgelan gatazkak eta erasoak mozten eta kontrolatzen dituela arazo barik (7. *item*).

Ikasleriaren arteko biolentzia arazoak ebazteko momentuan irakasle gehienek (%91,8; ≥ 4 ko balorazioa) beharrezkoa ikusten dute batik bat irakasle talde osoa egoeraren jabe izatea (9. *item*), eta familiak inplikatzea (10. *item*); izan ere, gehiengo batek (91,7%) lau eta bost punturekin horrela baloratu du. Neurri berean, irakasleriaren %73,3 biolentzia arazoak eliminatzeko eta pertsonen arteko erlazioak hobetzeko, curriculuma moldatzearen alde agertu da (≥ 4 ko balorazioa) (1. *item*).

5. taula

Preconcimei: Irakasleek jazarpen eta tratu txarren inguruan egindako balorazioak ehunekoetan (%)

Galdetegiko itemak	1	2	3	4	5	Guztira
1	3,5	1,2	21,2	23,5	50,6	%100
2	28,6	22,6	23,8	3,6	21,4	%100
3	8,2	4,7	22,4	32,9	31,8	%100
4	58,1	10,5	12,8	5,8	12,8	%100
5	5,8	4,7	44,2	29,1	16,3	%100
6	—	4,7	18,6	25,6	51,2	%100
7	8,2	4,7	22,4	32,9	31,8	%100
8	17,4	9,3	37,2	16,3	19,8	%100
9	2,3	—	5,8	20,9	70,9	%100
10	—	—	8,3	3,6	88,1	%100
11	8,2	1,7	12,4	22,9	41,8	%100
12	15,1	7,0	27,9	15,1	34,9	%100
13	18,2	4,7	22,4	22,9	31,8	%100
14	2,3	—	5,8	15,1	76,7	%100

Esperientzia urteei erreparatuz gero (ikusi 6. taula), datuek aditzera ematen dute lan esperientzia gutxien daukaten irakasleek (M 3,6) esperientzia gehien daukatenek (M 2,6) baino gutxiago hautematen dutela irakasleria ez dagoela jokaera oldarkorreko arazoak eta eskolako bortizkeria ebazteko prestatuta (8. *item*). Bestalde, lanean gutxien aritu diren irakasleek (M 3,455; < 10) esperientzia gehien daukatenek (M 1,75; ≥31 urte) baino biolentzia gehiago hautematen dute (2. *item*).

Ildo berean, esperientzia gehiago duten irakasleek (M2,850) (≥31 urte) ez datoz bat esperientzia gutxiago duten irakasleekin (3,788) (≤10 urte), azken hauek gurasoek ikasleen arteko gatazka-egoerak okerragotzen dituztela uste baitute (5. *Item*).

Bestalde, esperientzia gutxiago duten irakasleek (< 10; M3,788) inor baino gehiago hautematen dute beren klasetan gatazkak eta erasoak kontrolatu eta moztu ohi dituztela (7. *item*).

6. taula
Preconcimei: Irakasleek eskolako jazarpen eta trau txarren inguruan egindako balorazioak (1-5), irakasleen esperientzia urteak kontuan izanda

Galdetegiko itemak	< 10 n = 33		10-20 n = 16		21-30 n = 17		31-40 n = 20		n = 86
	M	DT	M	DT	M	DT	M	DT	M
1	4,36	0,962	3,60	0,91	3,88	1,364	4,50	0,688	4,16
2	3,455	1,5	3,133	1,5	1,750	0,774	1,750	0,85	2,667
3	3,19	1,25	3,56	0,892	2,65	1,169	3,15	0,988	3,14
4	2,394	1,456	1,625	1,2	1,294	0,985	2,450	1,7	2,047
5	3,788	0,78	3,375	0,885	3,588	0,939	2,850	1,26	3,453
6	4,455	0,753	3,938	1,123	3,824	1,014	4,450	0,759	4,233
7	4,091	1,2	3,813	0,91	3,563	1,2	3,300	1,2	3,753
8	3,606	1,27	2,938	1,48	2,941	1,02	2,600	1,31	3,116
9	4,788	0,41	4,375	1,14	4,412	0,71	4,550	0,99	4,581
10	4,839	0,522	4,625	0,806	4,706	0,686	4,950	0,223	4,798
11	4,667	0,595	4,250	1,125	4,294	0,985	4,500	0,607	4,477
12	4,212	1,13	2,938	1,526	3,059	1,29	3,050	1,43	3,477
13	4,515	0,61	4,375	1,14	4,529	1,007	4,600	0,598	4,512
14	4,758	0,56	4,375	1,14	4,647	0,99	4,650	0,58	4,640

7. taula
Bullying homofobikoko aldagaiak eta tratatu txar eta jazarpenen arteko korrelazioak

Aldagaiak	Galdetegiko itemak (Preconceimi)														
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	
a	R Pearson	,812**	,371**	,779**	,049	-,3**	,410**	,756**	,041	,692**	,511**	,371**	,526**	,371**	,853**
	Sig. (bilateral)	,000	,000	,000	,653	,001	,000	,000	,705	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	N	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84
b	R Pearson	,648**	,377**	,545**	,030	-,2*	,238*	,573**	,014	,618**	,323**	,377**	,437**	,377**	,621**
	Sig. (bilateral)	,000	,000	,000	,780	,038	,026	,000	,898	,000	,003	,000	,000	,000	,000
	N	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84
d	R Pearson	,786**	,510**	,713**	,132	-,19	,451**	,771**	,051	,708**	,400**	,510**	,593**	,510**	,769**
	Sig. (bilateral)	,000	,000	,000	,226	,068	,000	,000	,643	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	N	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84
e	R Pearson	,878**	,499**	,828**	,143	-,2*	,504**	,828**	,161	,769**	,487**	,499**	,670**	,499**	,930**
	Sig. (bilateral)	,000	,000	,000	,187	,021	,000	,000	,137	,000	,000	,000	,000	,000	,000
	N	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84	84

* Korrelazioa $p < 0,05$.

** Korrelazioa $p < 0,01$.

Bullying homofobikoa ekiditeko irakasleriaren profila

Azterketa korrelazionala gauzatu ostean (ikusi 7. taula), hainbat koefiziente esanguratsu eta erlazio positibo antzeman dira. Horrek bullying homofobikoaren inguruan ezagupena duen irakasleriaren profila edo ezaugarri profesionalak identifikatzea ahalbidetu du.

Jasotako datuen azterketak aditzera ematen du badagoela korrelazio positibo bat erlazio interpersonalak curriculumean jasotzea garrantzitsua dela (*1. item*) eta bullying homofobikoaren inguruko ezaguera (*a aldagaia*) ($r = 0,12$ $p < .01$) eta ekiditeko gaitasuna daukatela uste dutenen baliostapenen artean (*d aldagaia*) ($r = 0,78$ $p < .01$).

Beren klasean gatazkak eta erasoak kontrolatu eta moztu ohi dituztela adierazi duten irakasleen balioespenak ere (*7. item*) positiboki korrelazionatzen du bullying homofobikoaren inguruko ezaguera (*a aldagaia*) ($r = 0,756$ $p < .01$) eta fenomenoak ekiditeko gaitasuna daukatela uste duten balorazioekin (*d aldagaia*) ($r = 0,771$ $p < .01$).

Biolentzia egoerak eliminatzeko irakasle talde oso batek arazoak kontzientzia izatea beharrezkoa dela pentsatzen duten irakasleek (*9. item*) bullying homofobikoa ekiditeko gaitasuna daukatelako pertzepzioa dute (*d aldagaia*) ($r = 0,7$ $p < .01$), eta kontrakoak pentsatzen dutenek, aldiz, ez dute gaitasun hori daukatela hautematen.

Aipatzekoa da korrelazio esanguratsu eta lineala ere aurkitu dela, biolentzia arazoak errendimendu akademiko arazoak bezainbesteko garrantzia daukatela baloratu dutenen (*14. item*) eta bullying homofobikoaren inguruko ezaguera (*a aldagaia*) ($r = 0,853$ $p < .01$) eta ekiditzeko gaitasuna daukaten irakasleen arteko baliospenetan (*d aldagaia*) ($r = 0,769$ $p < .01$).

Azkenik, jazarpen homofobikoei aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzeko interesaren baliospenak (*e aldagaia*) positiboki korrelazionatzen du, batetik, erlazio interpersonalak curriculumaren garapenaren helburu garrantzitsuenetako bat dela adierazi duten irakasleen baliospenekin (*1. item*) ($r = 0,87$ $p < .01$) eta, bestetik, beren klasean gatazkak eta erasoak kontrolatu eta moztu ohi dituztela esan duten irakasleen balorazioarekin (*7. item*) ($r = 0,82$ $p < .01$).

Aldagai horrek ere biolentzia egoerak eliminatzeko irakasle talde oso batek arazoak kontzientzia izatea beharrezkoa dela (*9. item*) ($r = 0,76$ $p < .01$) eta biolentzia arazoak errendimendu akademiko arazoak bezainbesteko garrantzia daukatela pentsatzen dutenen (*14. item*) ($r = 0,93$ $p < .01$) balorazioekin korrelazioa du.

ONDORIOAK

Lan honen bitartez agerian gelditzen da inkesta gauzatu duen irakasle-riak ez duela bere burua oso gai ikusten bullying homofobikoa ekiditeko.

Izan ere, hamar irakasletatik bakarrik bik uste du trebatuta dagoela jazarpen homofobiko kasu posible bat ebazteko.

Bullying homofobikoa identifikatzeko gaitasuna daukatela uste dutenak, berriz, gehiago dira; izan ere ikerketan parte hartu duen irakasleriaren erdiak horrela hauteman du. Esperientzia gehien daukaten irakasleak dira beren burua trebatuen ikusten dutenak horrelako fenomeno bat identifikatzeko.

Ikerketaren bitartez jasotako datuek aditzera ematen dute ere irakasleriaren gehiengoak jazarpen mota honen inguruko zehaztapenen berri duela, eta lan esperientzia gehien duten irakasleek beren burua jantziagoa hautematen dutela lanean urte gutxi daramatzatenak baino.

Elkarbizitzarako praktika onak eta maisu-maistren etengabeko formakuntza ezinbestekoa da (Nicolaidis, Toda eta Smith, 2002; O'Moore, 2000). Hori dela eta, gauzatutako ikerketan bullying homofobikoari aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzeko interesa agertu duen irakasleria gehiena izan da. Lan urte gutxien daramatzan irakasleriak, hau da formakuntza formala bukatu duten azkeneko irakasleak, bere burua prestatuago ikusten du horrelako egoera bati erantzuteko.

Ikerketa honen bitartez ondorioztatu ere daiteke gaur egun jardunean dagoen irakasleriak bullying-az duen ezagutza jazarpen homofobikoko arazoak kudeatzen laguntzen dielako pertzepzioa duela, arloko zehaztapenak, ezagutzak sakonak eta aberatsak falta bazaizkie ere.

Bestalde, irakasleriak oro har biolentzia arazoak errendimendu akademikoan egon daitezkeen zailtasunak bezain garrantzitsuak direla balioetsi du. Gainera, gehiengo batek indarkeria arazoak elimintatzeko, eta pertsonen arteko erlazioak hobetzeko curriculuma moldatzea egokia izango litzatekela uste du (Chamorro, 2011; Cerezo, 2009b).

Irakasleriak ikasleen arteko bortizkeria eta gatazken kudeaketa bere esku-hartze hezitzailearen barruan dagoela balioetsi badu ere, herenak bakarrik baloratu du positiboki moztzen eta kontrolatzen dituela, eta esperientzia gutxiago duen irakasleriak inork baino gehiago hauteman du. Beste lan batzuek ere jakitera ematen dute irakasleriak eskola jazarpen egoera posible bati erantzuteko ezagutza eskasa duela, irakasle gehienek aurretiko formakuntza jaso ez dutelako (Navarro, 2011; Alvarez-García, Rodríguez, González, Nuñez eta Alvarez, 2010; Del Barrio et al., 2000).

Hamar irakasletatik hiru babesgabe sentitzen da ikasleriak eskolako arauak hausten dituenean jokabide erasotzaileen bitartez, eta ez du bere burua prestatuta ikusten portaera oldarkorreko arazoak eta eskolako bortizkeria ebazteko. Lanean gutxien aritu diren irakasleek esperientzia gehien daukatenean baino biolentzia gehiago hautematen dute, eta ez dute bere burua prestatuta ikusten horrelako arazoei aurre egiteko. Hori dela eta, irakasleen gehiengoak beharrezkoa ikusten du ikasleriaren arteko biolentzia arazoak ebaztean irakasle talde baten laguntzaz eta familiak inplikatzeari (Pichardok, 2015).

Bullying homofobikoaren inguruko ezagupena ezinbestekoa da arazoari konponbide bat emateko. Horrela, irakasleria horrek fenomenoari aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzeko interesa du, biolentzia eta errendimendu akademiko arazoei garrantzi bera ematen dio, eta erlazio interpersonalak curriculumean garatzea garrantzitsua dela uste du. Irakasle horiek biolentzia egoerak eliminatzeko irakasle talde oso batek arazoak kontzientzia izatea beharrezkoa dela pentsatzen badu ere, klaseko gatazkak eta erasoak kontrolatu eta moztu ohi duela uste dute.

Azkenik, lan honen bitartez irakasleriak tratatu txar, jazarpen eta zehazki bullying homofobikoaren inguruan duen ezagupena eta irakasle profila identifikatu badira ere, etorkizuneko ikerketetan interesgarria litzateke irakasleriak jazarpen homofobikoa ekiditzeko behar dituen tresna eta baliabideak jasotzea.

ERREFERENTZIAK

- Acuña-Ruíz, A. eta Oyuela, R. (2006). Diferencias en los prejuicios frente a la homosexualidad masculina en tres rangos de edad en una muestra de hombres y mujeres heterosexuales. *Psicología desde el Caribe: Universidad del Norte*, 18, 58-88. 2017ko apirilaren 4ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2qECyWf> -tik.
- Agustín, S. (2009). *Diversidad sexual en las aulas: evitar el bullying o acoso homofóbico*. 2017ko martxoaren 13an berreskuratuta, <http://bit.ly/2pZOzhC> -tik.
- Álvarez-García, D., Rodríguez, C., González, P., Nuñez, C. eta Álvarez, L. (2010). La formación de los futuros docentes frente a la violencia escolar. *Revista psicodidáctica*, 15(1), 36-56. 2017ko maiatzaren 1ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2q9RMGE> -tik.
- Avilés, J.M. (2009). Victimización percibida y bullying: factores diferenciales entre las víctimas. *Boletín de psicología*, 95, 7-28. 2017ko otsailaren 3an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rr3Nfw> -tik.
- Avilés, J. M. (2006). *Bullying: el maltrato entre iguales: agresores, víctimas y testigos en la escuela*. Salamanca: Amarú Ediciones.
- Avilés, J. M. (2002). *Preconcepción: cuestionario sobre Preconcepciones de Intimidación y Maltrato Entre Iguales*. Valladolid: JMAN.
- Barri, F. (2006). *SOS bullying: prevenir el acoso escolar y mejorar la convivencia*. Las Rozas (Madrid): Kluwer.
- Bautista, E. (2016). El acoso escolar ante la diversidad sexual: un problema invisible. *Revista de Ciencias de la Educación: Academicus*, 9(1), 15-21. 2017ko martxoaren 29an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qw94xM> -tik.
- Calderón, P., Cortés, J. eta Retamales, C. (2012). *Estudio descriptivo de los conocimientos y opiniones sobre sexualidad, bullying, homofobia y bullying homofóbico de los estudiantes de primer año medio de los liceos municipales de la comuna de San Felipe de Aconcagua: Liceo Doctor Roberto Humeros Oyandener y Liceo Bicentenario Cordillera* (doktorego tesia). Playa Ancha Unibertsitatea: Pedagogía Fakultatea. 2017ko martxoaren 13an berreskuratuta, <http://bit.ly/2pZjk6y> -tik.

- Cerezo, F. (2015). Bullying homofóbico: el papel del profesorado. *INFAD Revista Psicológica*, 1(1), 417-424. 2017ko apirilaren 24an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rrpBaT> -tik.
- Cerezo, F. eta Sánchez, C. (2013). Eficacia del programa CIP para la mejora de la convivencia escolar y la prevención del bullying en alumnos de Educación Primaria. *Apuntes de psicología*, 31(2), 173-181. 2017ko apirilaren 22an berreskuratuta, <http://bit.ly/2q6L9FQ> -tik.
- Cerezo, F. (2009a). *La violencia en las aulas: análisis y propuestas de intervención*. Madril: Pirámide.
- Cerezo, F. (2009b). Bullying: análisis de la situación en aulas españolas. *Revista Internacional de Psicología y Terapia Psicológica*, 9(3), 383-394. 2017ko otsailaren 1an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rH0wVW> -tik.
- Chamorro, M. (2011). Bullying o acoso escolar. *Pedagogía Magna*, 9, 20-26. 2017ko otsailaren 10ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2rFC3B2> -tik.
- COGAM. (2016). *Cyberbullying LGBT-fóbico: nuevas formas de intolerancia*. Madril: Grupo de Educación de COGAM. 2017ko apirilaren 26an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qEN0oc> -tik.
- Comisión Nacional de Derechos Humanos. (2012). *La discriminación y el derecho a la no discriminación*. 2017ko apirilaren 27an berreskuratuta, <http://bit.ly/28TxOHO> -tik.
- Cornejo, J. (2012). Componentes ideológicos de la homofobia. *Límite Revista de Filosofía y Psicología*, 26(7), 85-106. 2017ko martxoaren 21ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2r6fHeX> -tik.
- Del Barrio, C., Espinosa, M.A., Martín, E., Ochaíta, E., Barrios, A., de Dios, M.J., Gutiérrez, H., Montero, I. (2000). *Violencia escolar: el maltrato entre iguales en la educación secundaria obligatoria*. Madrid: Publicaciones de la Oficina del Defensor del Pueblo.
- Díaz, E. (2015). *Acoso escolar, apoyo social y calidad de vida relacionada con la salud* (doktorego tesia). Gaztela-Mantxako Unibertsitatea: Psikologia Fakultatea. 2017ko otsailaren 3an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rFNj0u> -tik.
- Embajada de Finlandia. (d.g). *KiVa: programa finlandés anti acoso escolar*. 2017ko martxoaren 28an berreskuratuta, <http://bit.ly/24zl68C> -tik.
- Erazo, O. (2012). La intimidación escolar, actores y características. *Revista Vanguardia Psicológica*, 3(1), 80-102. 2017ko otsailaren 5ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2r6OJn> -tik.
- Eusko Jaurlaritz. (2017). *Eskola jazarpena*. 2017ko martxoaren 19an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rFwItH> -tik.
- Garaigordobil, M. eta Martínez-Valderrey, V. (2014). Efecto del Cyberprogram 2.0 sobre la reducción de la victimización y la mejora de la competencia social en la adolescencia. *Revista de psicodidáctica*, 19(2), 289-305. 2017ko apirilaren 22an berreskuratuta, <http://bit.ly/2q1CH2C> -tik.
- Garaigordobil, M. eta Oñederra J.A. (2010). *La Violencia entre iguales: revisión teórica y estrategias de intervención*. Madril: Pirámide.
- García, J. J.; Moncada, R. M. eta Quintero, J. (2013). El bullying y el suicidio en el escenario universitario. *Revista Colombiana de Ciencias Sociales*, 4(2), 298-310. 2017ko apirilaren 29an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qoNK2g> -tik.
- Gómez, A.; Gala, F.J., Lupiani, M., Bernalte, A., Miret, M.T., Lupiani, S. eta Barreto M.C. (2007). El «bullying» y otras formas de violencia adolescente.

- Cuad Med Forense*, 13 (48-49), 165-177. 2017ko apirilaren 16an berreskuratuta, <http://bit.ly/2r1mFRj> -tik.
- González, A. (2015). Programa TEI: Tutoría entre iguales. *Innovación educativa*, 25, 17-32. 2017ko martxoaren 28an berreskuratuta, <http://bit.ly/2q9EeuP> -tik.
- ISEI.IVEI. (2012). *El maltrato entre iguales en Educación Primaria y ESO*. Gazteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2017ko martxoaren 19an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rrvdSG> -tik.
- ISEI.IVEI. (2009). *El maltrato entre iguales en Euskadi*. Gazteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2017ko martxoaren 19an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qETZgI> -tik.
- Marchueta, A. (2014). Consecuencias del bullying homofóbico retrospectivo y los factores psicosociales en el bienestar psicológico de sujetos LGB. *Revista de Investigación Educativa*, 32 (1), 255-271. 2017ko apirilaren 20an berreskuratuta, <http://bit.ly/2pZJQwm> -tik.
- Menéndez, I. (2004). *Bullying: acoso escolar*. 2017ko otsailaren 12an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qrLQcU> -tik.
- Molinuevo, Belen. (2007). *Especificidad del Acoso Escolar por Homofobia*. Curso El Sexo y El Amor no son de un solo color. Madrid: CCOO.
- Navarro, F. (2011). *Programa Solución a los Problemas de Disciplina (SOPRODIS)*. Valentzia: Consejería de Educación de la Generalidad Valenciana. 2017ko otsailaren 3an berreskuratuta, www.cefe.gva.es/eva/docs/convivencia/manual_soprodiss.pdf -tik.
- Nicolaidis, S.; Toda, V. y Smith, P.K. (2002). Knowledge and attitudes about school bullying in trainee teachers. *British Journal of Educational Psychology*, 22, 105-118.
- O'Moore, M. (2000). Critical issues for teacher training to counter bullying and victimisation in Ireland. *Aggressive Behaviour*, 26, 99-111.
- Ovejero, A.; Smith, P. eta Yubero, S. (2013). *El acoso escolar y su prevención: perspectivas internacionales*. Madrid: Biblioteca Nueva Universidad.
- Pacheco, C.R., Cabrera, J.S., Mazón, M., González, I. eta Bosque, M. (2014). Estereotipos de género sexistas: un estudio en jóvenes universitarios cubanos de medicina. *Revista Ciencias Médicas*, 18(5), 853-867. 2017ko maiatzaren 1ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2s3hWx5> -tik.
- Paulino, L.R., Avilés, J.M. eta Sales P.J. (2016). Bullying, un problema moral: representaciones de sí mismo y desconexiones morales. *Revista de educación*, 373, 9-34. 2017ko otsailaren 6an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qICsVp> -tik.
- Pichardo. (2015). *Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico*. 2017ko martxoaren 11an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qEN0oc> -tik.
- Platero, R. (2008). La homofobia como elemento clave del acoso escolar homofóbico: algunas voces desde Rivas Vaciamadrid. *Información psicológica*, 94, 71-83. 2017ko apirilaren 2an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rFKH2A> -tik.
- Pulido, M.A., Muñoz, F. eta Pérez-Palacios, P. (2013). Homofobia en la Ciudad de México. *Revista Intercontinental de Psicología y Educación*, 15(2), 93-114. 2017ko martxoaren 21ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2qIBKaJ> -tik.
- Rodríguez, L.M. eta Mancinas, S.E. (2015). Nivel de sexismo y estereotipos de género en estudiantes de Trabajo Social Regiomontanas. *Revista internacional*

- del trabajo y del bienestar*, 5, 17-30. 2017ko apirilaren 18an berreskuratuta, <http://bit.ly/2r9jTIO> -tik.
- Ruiz, R., Riuró, M. eta Tesouro, M. (2015). Estudio del bullying en ciclo superior de primaria. *Educación XXI*, 18(1), 345-368. 2017ko otsailaren 1an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rGUAyY> -tik.
- Sánchez, C. eta Cerezo, F. (2014). Conceptualización del bullying y pautas de intervención en Educación Primaria. *INFAD Revista de Psicología*, 1(6), 443-452. 2017ko otsailaren 1ean berreskuratuta, <http://bit.ly/2qLBZQ7> -tik.
- Schoolmates. (2008). *Bullying homofóbico en las escuelas: guía para los profesores*. 2017ko martxoaren 27an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rFmBVv> -tik.
- Trianes, M.V., Sanchez, A. eta Muñoz, A. (2001). Educar la convivencia como prevención de violencia interpersonal: perspectivas de los profesores. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 41, 73-93. 2017ko otsailaren 3an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rbGQN2> -tik.
- UNESCO. (2015). *El bullying homofóbico y transfóbico en los centros educativos*. 2017ko apirilaren 22an berreskuratuta, <http://bit.ly/2qrLqTW> -tik.
- UNESCO. (2013). *Respuestas del Sector Educación frente al Bullying Homofóbico*. 2017ko apirilaren 3an berreskuratuta, <http://bit.ly/2rtQeMN> -tik.